

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA

**Programa:** 459100 TOKI ERAKUNDEENTZAKO  
LAGUNTZA PROGRAMAK

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 459100 PROGRAMAS DE AYUDAS A  
ENTIDADES LOCALES

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Programa honen helburua da Arabako lurralde osoan toki erakunde guztiek maila bertsuko zerbitzuak eta prestazioak eman ahal izatea, Arabako landa inguruneke herritarren ongizatea hobetzeko. Programa honetan jasotzen dira, hain zuzen ere, Foru Aldundiak toki erakundeei obretan eta zerbitzuetan inbertsioak egiten laguntzeko dauzkan tresna nagusiak. Tresna horietako gehienak baldintzapeko laguntzak izaten dira.

Programa honetako lehen jardun eremuan (“Inbertsiorako eta lurralde orekarako planak”) honako hauek dira inbertsio plan nagusiak:

##### 1.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak arautzen du Obra eta Zerbitzuen Foru Plana kudeatzeko programa.

Arau horretan xedatutako lurralde eta sektore helburuez gain, hauek dira haren funtsezko oinarriak:

1. Lurralde oreka.
2. Toki erakundeeekiko lankidetzaz.
3. Lurralde historikoko toki erakundeen autonomia eta eskuduntza bereziak errespetatzea.
4. Publikotasuna eta objektibotasuna.

Obra eta Zerbitzuen Foru Plana Arabako Lurralde Historikoari dagozkion baliabide erabilgarrien ehuneko 2,52arekin zuzkituko da gutxienez. Erabilgarri dauden baliabideak 4/2021 Legean xedatzen duenarekin bat etorritik kalkulatu dira (4/2021 Legea, urriaren 7koa, baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den

#### I. MEMORIA

Este programa se impone como objetivo la dotación a las entidades locales alavesas de un nivel de servicios y prestaciones equiparables y accesibles en todo el territorio para incrementar el nivel de bienestar de la población rural de Álava. Se recogen en él los principales instrumentos de los que dispone la Diputación Foral para la cooperación a la inversión en las entidades locales en obras y servicios, a través de ayudas de carácter mayoritariamente condicionado.

En el primero de los ámbitos de actuación que se incluyen en este Programa, “Planes de Inversión y Equilibrio Territorial”, los principales planes de inversión son:

##### 1.- Plan Foral de Obras y Servicios.

La Norma Foral 9/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios, regula el Programa a través del cual se gestiona el Plan Foral de Obras y Servicios.

Además de los objetivos territoriales y sectoriales establecidos en la citada Norma, son sus principios inspiradores:

1. El equilibrio territorial.
2. La cooperación con las entidades locales.
3. El respeto a la autonomía local y a las atribuciones peculiares de las entidades locales del Territorio Histórico.
4. Publicidad y objetividad.

La partida que lo sustenta viene dotada con, al menos, el 2,52 por ciento de los recursos disponibles correspondientes al Territorio Histórico de Álava, calculados de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA

**Programa:** 459100 TOKI ERAKUNDEENTZAKO  
LAGUNTZA PROGRAMAK

metodologiari buruzkoa).

- a) Aipatutako foru arauaren 7. artikuluan ezartzen diren obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak.
- b) Planeko obren proiektuak idazteagatik eta obra horiek zuzentzeagatik ordaindu beharreko ordainsariak finantzatzeko dirulaguntzak.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 24/2021 Foru Dekretuaren bidez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2022-2023 aldirako laguntzak emateko oinarriak onetsi ziren.

### 2.- Auzokideen arteko harremanen sustapena.

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren bidez, Arabako toki erakundeetan auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntzen programaren araudia onetsi zen.

Programa honen oinarri ekonomikoa diren partiden helburua da toki erakundeek gauzatu beharreko obrak eta ekipamendu konponketak finantzatzen laguntzea, obra horiek kontzejuen auzolan sistemaren bidez egiten badira, hau da, erakundea osatzen duten bizilagunek eskulana eta lanabesak, animaliak edo garraio ibilgailuak jartzen badituzte.

Finantzaturiko laguntzen xedea da 21/2013 Foru Arauak 6. artikuluan ezartzen dituen obrak finantzatzea, baldintza hau betetzen bada:

- Jardueraren kostu osoa (materialen kostua + makinak alokatzeko kostua + diruz lagundu gabeko langile espezializatuen kostua) ezin da izan 30.000,00 euro baino gehiago (BEZa barne).

Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 25eko 314/2021 Erabakiaren bidez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenen 2022ko Programako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren.

### 3.- Obra txikiak egitea

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 459100 PROGRAMAS DE AYUDAS A  
ENTIDADES LOCALES

País Vasco aplicable al periodo 2022-2026.

- a) Subvenciones económicas para la financiación de las obras y servicios que quedan recogidas en el artículo 7 de la Norma Foral antes citada.
- b) Subvenciones económicas por los honorarios de redacción de proyectos y direcciones de obras que sean incluidas en el Plan.

Por Decreto Foral 24/2021, del Consejo de Gobierno Foral, de 1de junio, se aprueban las bases para la concesión de ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava para el periodo 2022-2023 del Plan Foral de Obras y Servicios.

### 2.- Promoción de Relaciones Vecinales.

Mediante Norma Foral 21/2013, de 27 de junio se aprobó la regulación del Programa de ayudas a las Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales en las Entidades Locales de Álava.

El objetivo de las partidas que sustentan económicamente este programa es ayudar a la ejecución de obras y la reparación de equipamientos que realicen las entidades locales por el sistema de veredas de obras concejiles o auzolan, es decir, con la aportación de mano de obra y herramientas, animales o vehículos de transporte de los habitantes que componen la entidad.

Las ayudas financiadas tienen por objeto la financiación de ejecución de obras cuya tipología queda recogida en el artículo 6 de la Norma Foral 21/2013, siempre que:

- El coste total de ejecución de la actuación (coste de materiales + coste de alquiler de maquinaria + coste de personal especializado no subvencionado) no superará la cuantía máxima de 30.000,00 euros incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido).

Por Acuerdo 314/2021, del Consejo de Gobierno de 25 de mayo, se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2022 de Iniciativas para el Fomento de las relaciones Vecinales.

### 3.- Ejecución de Obras Menores

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA

**Programa:** 459100 TOKI ERAKUNDEENTZAKO  
LAGUNTZA PROGRAMAK

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren bidez, Arabako toki erakundeetan obra txikiak egiteko programaren araudia onetsi zen.

Obra txikiak egiteko toki erakundeentzako laguntza programa aparteko finantzaketa lankidetzarako tresna bat da, Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzeko. Programa horren bidez toki erakundeei laguntzak ematen zaizkie beren inbertsioak finantza ditzaten, baldintza hau ezarrita: ezin dute beste laguntzarik jaso Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Sailak kudeatzen dituen inbertsio planen kontura.

Emandako laguntzen xedea da 21/2013 Foru Arauak 17. artikuluan ezartzen dituen obrak finantzatzea, baldintza hau betetzen bada:

- Guztirako kostua (lizitazioaren oinarritzko aurrekontua) ezin da izan 35.000,00 euro baino gehiago (BEZa barne).

Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 25eko 313/2021 Erabakiaren bidez Arabako toki erakundeei 2022ko programako obra txikiak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onetsi ziren.

#### 4.- Finantzaketako foru lerroa:

Finantzaketa lerroa Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa lankidetzarako tresna da, eta, horren bidez, beharrezko kapitala jartzen da Arabako toki erakundeen eskura, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez diruz lagun daitezkeen obrak egiteko. Horren amortizazioa geroratu egiten da denboran, eta Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du aldundiak berak zehaztutako finantza erakundearen xede horretarako gaitu den kreditu kontuaren finantza kostua.

#### 5.- Beste jarduketa batzuk

Jardun eremu honetan honako jarduketa hauek ere egin dira:

- Zabalkunde eta sustapen gastuak. Obra txikiak gauzatzeko eta auzo harremanetarako urteko

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 459100 PROGRAMAS DE AYUDAS A  
ENTIDADES LOCALES

Mediante Norma Foral 21/2013, de 27 de junio se aprobó la regulación del Programa Ejecución de Obras Menores en las Entidades Locales de Álava.

El Programa de ayudas a las entidades locales para la ejecución de obras menores es un instrumento extraordinario de cooperación financiera de la Diputación Foral con las entidades locales del Territorio Histórico de Álava destinado a la concesión de ayudas para la financiación de inversiones a realizar por las mismas, cuando aquéllas no hayan sido objeto de otras ayudas con cargo a los diversos planes de inversión gestionados por el Departamento de Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava.

Las ayudas concedidas tienen por objeto la financiación de la ejecución de obras cuya tipología queda recogida en el artículo 17 de la Norma Foral 21/2013, siempre que:

- Su coste total (presupuesto base de licitación) no puede superar los 35.000,00 euros (IVA incluido).

Por Acuerdo 313/2021, del Consejo de Gobierno de 25 de mayo, fueron aprobadas las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las entidades locales de Álava para la ejecución de obras menores en el Programa 2022.

#### 4.- Línea Foral de Financiación:

La línea de financiación es un instrumento de cooperación financiera de la Diputación Foral de Álava, por el que pone a disposición de las Entidades Locales de Álava el capital necesario para la realización de las obras subvencionables a través del Plan Foral de Obras y Servicios, cuya amortización se realizará de forma aplazada en el tiempo, asumiendo la Diputación Foral de Álava el coste financiero de la cuenta de crédito habilitada a tal efecto en la Entidad financiera que determine la propia Diputación.

#### 5.- Otras actuaciones

Asimismo, en este ámbito de actuación se acometen otras acciones:

- Gastos de difusión y promoción. Se ha procedido a la elaboración y distribución de los carteles

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA  
**Programa:** 459100 TOKI ERAKUNDEENTZAKO  
LAGUNTZA PROGRAMAK

programetan diruz lagundutako obrei dagozkien kartelak egin eta banatzea.

- Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuarentzako material bibliografiko tekniko eskuratzea.
- Kanpoko lanak eta zerbitzuak.
- Arabako Lurralde Historikoan larrialdietarako eta ezustekoetarako obrak finantzatzeko laguntzen programa espezifiko. Horren arauketa jasota dago laguntza programaren oinarri arautzaileak onesten dituen Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 43/2018 Foru Dekretuan, eta, 2022ko ekitaldirako, 2022ko ekitaldiko deialdia onesten duen Gobernu Kontseiluaren martxoaren 1eko 107/2022 Erabakian.

### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA**

2022ko ekitaldian Gobernu Kontseiluaren ekainaren 14ko 356/2022 Erabakiaren bidez guztira 37.495.987,00 euroko dirulaguntzak onetsi ziren 2022-2023 aldirako Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Programaren kontura.

Diru kopuruak Arabako Foru Aldundiaren 2023, 2024 eta 2025eko aurrekontuetako konpromiso kredituen kargura zainpetu dira, honako aurrekontu lerro hauetan:

| PARTIDA<br>PARTIDA   | URTEA<br>ANUALIDAD | ZENBATEKOA<br>IMPORTE |
|--|--------------------|-----------------------|
| 10203. G/459100/76200104 Obra eta Zerbitzuen 2022-23 Foru Plana<br>Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 | 2023               | 7.499.197,40          |
| 10203. G/459100/76200104 Obra eta Zerbitzuen 2022-23 Foru Plana<br>Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 | 2024               | 16.873.194,15         |
| 10203. G/459100/76200104 Obra eta Zerbitzuen 2022-23 Foru Plana<br>Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 | 2025               | 13.123.595,45         |

Hala ere, toki erakunde onuradun batzuek uko egin diote dirulaguntzari, eta ondorioz aurrekontu ekitaldia amaitutakoan honako hauek izan dira behin betiko zenbatekoak:

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL  
**Programa:** 459100 PROGRAMAS DE AYUDAS A  
ENTIDADES LOCALES

correspondientes a las obras subvencionadas en los Programas anuales de Ejecución de Obras Menores y de Relaciones Vecinales.

- Adquisición de material bibliográfico técnico destinado al Servicio de Promoción y Financiación de Infraestructuras Locales y Supramunicipales.
- Trabajos y servicios exteriores.
- Programa específico de ayudas orientadas a la financiación de obras de Emergencias e Imprevistos en el THA. Su regulación queda recogida en el Decreto Foral 43/2018, del Consejo de Gobierno de 4 de septiembre de 2018 mediante el que se aprueba las bases reguladoras del programa de ayudas, y, para el ejercicio 2022, en el Acuerdo 107/2022, del Consejo de Gobierno de 1 de marzo, mediante el que se aprueba la convocatoria del ejercicio 2022.

### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

En el ejercicio 2022, por Acuerdo del Consejo de Gobierno 356/2022 de 14 de junio, se aprobaron ayudas por importe de 37.495.987,00 euros con cargo al Programa del Plan Foral de Obras y Servicios para el periodo 2022-2023.

Las cantidades se han consignado con cargo a los créditos de compromiso 2023, 2024 y 2025 del presupuesto de la Diputación Foral de Álava, en las líneas presupuestarias que se relacionan:

No obstante, como consecuencia de las renunciaciones de subvención presentadas por algunas de las entidades locales beneficiarias de las ayudas los importes de subvención consignados a la finalización del ejercicio

II.

**2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022****Saila:** 10 LURRALDE OREKA**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL**Programa:** 459100 TOKI ERAKUNDEENTZAKO  
LAGUNTZA PROGRAMAK**Programa:** 459100 PROGRAMAS DE AYUDAS A  
ENTIDADES LOCALES

presupuestario son:

| PARTIDA<br>PARTIDA   | URTEA<br>ANUALIDAD | ZENBATEKOA<br>IMPORTE |
|--|--------------------|-----------------------|
| 10203. G/459100/76200104 Obra eta Zerbitzuen 2022-23 Foru Plana<br>Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 | 2023               | 7.335.427,01          |
| 10203. G/459100/76200104 Obra eta Zerbitzuen 2022-23 Foru Plana<br>Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 | 2024               | 16.077.846,89         |
| 10203. G/459100/76200104 Obra eta Zerbitzuen 2022-23 Foru Plana<br>Plan Foral de Obras y Servicios 2022-23 | 2025               | 13.123.595,45         |

Bestalde, aholkularitza teknikoa, ekonomikoa eta kontrolari buruzkoa eman dira, obrak gauzatzeko, eta aurreko planetan dirulaguntza jaso zuten eta oraindik gauzaten ari diren obren jarraipena ere egin da.

Por otra parte, se ha seguido ejerciendo las tareas de asesoramiento técnico, económico y de control en la ejecución de obras, así como el seguimiento de las subvencionadas en Planes anteriores y aún en fase de ejecución.

**1.- Auzo harremanak sustatzeko ekimenak**

Kontseiluaren apirilaren 26ko 249/2022 Erabakiaren bidez onetsi da guztira 810.255,28 euroko laguntzak ematea Arabako toki erakundeei, Auzo Harremanak Sustatzeko 2022ko Programaren kargura. Ekitaldiaren amaierarako 723.762,14 euro erabilita egon dira.

**1.- Iniciativas para el Fomento de Relaciones Vecinales**

Por Acuerdo del Consejo 249/2022, de 26 de abril, se aprueba la concesión de ayudas con cargo al Programa 2022 de Promoción de Relaciones Vecinales, a las entidades locales de Álava por un total de 810.255,28 euros. El nivel de ejecución a la finalización del ejercicio presupuestario asciende a 723.762,14 euros.

**2.- Obra txikiak egitea**

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 26ko 248/2022 Erabakiaren bidez Obra Txikiak Egiteko 2022ko Programaren kargurako laguntzen bidez 2.604.946,15 euro banatzea onetsi da.

**2.- Ejecución de Obras Menores**

Por Acuerdos del Consejo de Diputados 248/2022, de 26 de abril, se aprueba la concesión de ayudas con cargo al Programa 2022 de Ejecución de Obras Menores, por una cuantía total de 2.604.946,15 euros.

Beste alde batetik, Sarriako Administrazio Batzarrari emandako dirulaguntzari 1.686,66 euro gehitu zaizkio, eta ondorioz lerro honetan 2022ko ekitaldian guztira 2.606.632,81 euro eman dira.

Por otra parte, se concede a la Junta Administrativa de Sarria un incremento de 1.686,66 euros sobre la subvención inicial concedida, con lo que el importe finalmente concedido en la convocatoria 2022 de esta línea de ayudas asciende a 2.606.632,81 euros.

Ekitaldiaren amaieran, gauzatzeko maila 2.346.198,65 eurokoa izan da.

Al final del ejercicio, el nivel de ejecución asciende a 2.346.198,65 euros.

**4.- Finantzaketako Foru Lerroa**

Finantzaketako Foru Lerroan toki erakundeen kontratazioaren ondoriozko finantza kostuak eta Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez

**4.- Línea Foral de Financiación**

Al final del ejercicio, el nivel de ejecución de la partida Línea Foral de Financiación, que recoge los costes financieros derivados de la contratación

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA

**Programa:** 459100 TOKI ERAKUNDEENTZAKO  
LAGUNTZA PROGRAMAK

dirulaguntza jaso dezaketen obren kostuei aurre egiteko behar diren kreditu lerroenak sartzen dira. Aurrekontua 15.000,00 eurokoa izan da, eta ekitaldia amaitu denerako partidako 7.846,30 euro egon dira erabilita.

### 5.- Beste jarduketa batzuk

- Zabalkunde eta sustapen gastuak. Obra Txikien eta Auzokideen arteko Harremanen kartelak egiteko materialengatik 1.013,01 euro ordaindu dira guztira.

- Material bibliografikoa erostea. Guztira 187,00 euro ordaindu dira.

- Kanpoko lanak eta zerbitzuak

2022ko ekitaldian Gasteizko udalerriko herrigune batzuetako azpiegiturak digitalizatzeko kontratua lizitatu eta adjudikatu da; zenbatekoa: 36.752,00 euro.

- Larrialdi eta ezustekoen programa:

2022ko ekitaldian Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko aurrekontu esleipenaren % 6 baino gutxiago esleitu da, foru arauan ezarrita dagoen bezala.

Programa honetako obrei dagozkien urteko zenbatekoak eta ordaindutako zenbatekoak honako hauek dira:

| Deialdia<br>Convocatoria             | 2022. urtea<br>Anualidad 2022 | Ordainketak<br>Abonos |
|--------------------------------------|-------------------------------|-----------------------|
| 2022ko deialdia<br>Convocatoria 2022 | 16.126,88                     | 0,00                  |

Gainera, aholkularitza teknikoa, ekonomikoa eta kontrolari buruzkoa eman dira, obrak gauzatzeko, eta aurreko ekitaldietan dirulaguntza jaso eta oraindik gauzatzen ari diren obren jarraipena egin da.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 459100 PROGRAMAS DE AYUDAS A  
ENTIDADES LOCALES

realizada por las entidades locales, de líneas de crédito precisas para abordar los costes de obras subvencionables a través del Plan Foral de Obras y Servicios, cuyo presupuesto es de 15.000,00 euros, asciende a 7.846,30 euros.

### 5.- Otras actuaciones

- Gastos de difusión y promoción. El importe total abonado por los materiales de la elaboración de los carteles de Obras Menores y de Relaciones Vecinales, asciende a 1.013,01 euros.

- Adquisición de material bibliográfico. El importe total abonado asciende a 187,00 euros.

- Trabajos y servicios exteriores

En el ejercicio 2022 se ha licitado y adjudicado la digitalización de las infraestructuras de algunos de los núcleos de población del municipio de Vitoria-Gasteiz por importe de 36.752,00 euros.

- Programa de Emergencias e Imprevistos:

Durante el ejercicio 2022 se ha consignado una cuantía total inferior al máximo del 6% de la consignación presupuestaria anual de Plan Foral de Obras y Servicios, tal y como queda establecido en la Norma Foral.

El importe de las anualidades e importes abonados de las obras incluidas en este programa es el siguiente:

Asimismo, se ha seguido ejerciendo las tareas de asesoramiento técnico, económico y de control en la ejecución de obras, así como el seguimiento de las obras subvencionadas en la convocatoria correspondiente a los ejercicios anteriores y aún en fase de ejecución.